Sagardogileen Elkarteak herri eta auzoetako jaietan sagardoaren kontsumoa bultzatzen jarraitzeko asmoa du.

# Bizkaiko sagardogileak, udako kanpainarekin itxaropentsu

BILBO

zkaiko sagardotegiek inoiz ndako produkziorik handie- lortu dute aurten, iazkoa sa- urte oparoa izan zelako, eta honetan salmentak bultza- ko kanpainari ekin diote, bai okietan, baina baita taberne- elkarteetan, eta nola ez, he- eta auzoetako jaietan.

Aitor Intxaurraga, Bizkaiko gardogileen Elkarteko lehen- karia, animatuta azaldu da rten Euskal Sagardoaren bul- ada izango dutelako. «Zortzi ardotegi gara Bizkaian eta rietatik bost gaude Jatorri ituraren barruan, eta espero gu Euskal Sagardoak martxan n duen kanpainari esker uda etan gure salmentak area- zea».

an ere, aurten Bizkaiko upa- iek inoiz baino sagardo iago egitea lortu dute, iaz sa- uzta historikoa izan zelako, denera 250.000 litro egin di- e, aurreko urtearen bikoitza. la eta guztiz ere, balorazio- egiteko oraindik goiz dela us- du Intxaurragak, salmenta dienak udan izaten baitira. a partea da salmenta han- ak egiten diren sasoia eta indik ez dakigu zeintzuk go diren kanpainaren emai- k, eguraldiak eragin handia lako. Baina animatuta gau- , dio.

uskal Sagardoak martxan ja- ako kanpainaz gain, Bizkaiko gardogileen Elkarteak herri a auzoetako jaietan ere sagar- aren kontsumoa bultzatzen aitzeko asmoa du. «Bizkaiko gardogileen Elkartean hainbat rdo egun antolatzen ditugu, eta eskualdeetan ere kanpaina bereziak jartzen ditugu martxan. Lea-Artibain, adibidez, sagardo egunak antolatzen dira Ondarroako eta Lekeitioko jaiekin bat eginez».



Bizkaiko sagardotegiek aurtengo denboraldiari Zornotzako Uxarten eman zioten hasiera, urtarrilean. Aritz LOIOLA | FOKU

### Bertako sagarra

Esan bezala, Bizkaiko sagardotegiek 250.000 litro egin dituzte aurten, guztia bertako sagarrarekin. «Guk beti Bizkaiko sagarra erabiltzen dugu eta aurten soberan izan dugunez, Gipuzkoara ere saldu dugu».

Bizkaian sagardoa ekoizten duten hamar sagardotegietatik bostek dute aurten jatorri deituraren zigilua: Markinako Axpe, Gatikako Eguskiza eta Etxebarria, Gizaburuagako Laneko Kooperatiba eta Zornotzako Uxarte.

Intxaurragaren iritziz, jatorri deitura bertako sagarrarekin ekoitzitako sagardoa bultzatzeko tresna egokia izan daiteke: «Guk Bizkaian beti erabili dugu bertako sagarra, baina Euskal Herri mailan bertako sagarra bultzatzeko balio izango du, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ere sartzen badira».

Botilako salmentaz gain, Bizkaiko hiru sagardotegik –Markinako Axpek, Zornotzako Uxartek eta Berriatuko Laka-Erdiktxotxetik ere egiten dute lan eta hauek urte osoan zehar zabaltzen dute.

Aurten etorriko den sagar uztari dagokionez, Aitor Intxaurraga ere animatuta azaltzen da, eguraldia lagun dutelako. «Sagar urtea bi urtean behin izaten bada ere, eta iazkoa urte historikoa izan bazen ere, aurten sagastiak lorez beteta daude eguraldia lagun izan dugulako eta esperantza daukagu datorren kanpaina ere nahiko ona izango dela».

### AURTEN ERE SAGASTIAK LOREZ BETETA

**Aurten etorriko den sagar uztari dagokionez, Aitor Intxaurraga animatuta azaltzen da. «Sagar urtea bi urtean behin izaten bada ere, eta iazkoa urte historikoa izan bazen ere, aurten sagastiak lorez beteta daude», dio.**

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Bizkaiko sagardoaren alde egin, anima zaitez

bizkaiko sagardogileak

Berriatua
Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Gatika
Etxebarria Sagardoa
Itxiar Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Gatika
Eguskiza Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Gizaburuaga
Laneko Koop
Leartibai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Lezama
Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguren Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Markina-Xemein
Axpe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Zornotza
Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15

Zornotza
Etxerriaga Sagardoa
Unai Bilbao
Tel.: 607 601 925

www.bizkaikosagardoa.eus